

## 9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Munduan, hainbat enpresa daude eta bakoitzak, zerbitzu desberdinak eman edo saltzen ditu. Gure enpresa funtzionatzeko hainbat arlo ondo funtzionatu beharko dute:

→ **Aplikazioa:** Gure bezeroekin harremanetan jartzeko aplikazioa txarto egiten edo funtzionatzen badu, hauek ez dute esfortzurik egingo gure lana beste modu batera lortzeko. Hau da, aplikazioa argia eta erraza izan behar da, eta aldi berean, deigarria. Horrela bezeroei begietatik itxura ona sartuko zaie lehen momentutik.

Horretarako, gure taldekide Damian dugu eta berak duen gaitasun eta gaitasun guztia lanean jarriko dugu berak duen onena gauzatzeko.

Aplikazio hau oso erraza da erabiltzea, gure app eguneratua eta erabilerraza jaitsi (App Store edo Google Play- en eskuragai dagoela) eta hiru aukeretatik, beharrezkoa dena klikatu. Datu batzuk sartu eta gurekin kontaktuan jarri ondoren, adostutako lekuan eta momentuan geratuko gara.



→ **Sinesgarritasuna:** Lehen momentutik guran fidagarritasuna sortu behar dugu. Horretarako, zerbitzu bat eskatzen duten momentutik haiekin kontaktuan jarriko gara. Gure gogo guztiarekin eta ahal dugun hoberen lan egin behar dugu, horrela gauzak ondo irtengo dira eta bezeroek gutaz fidatuko dira. Gauzak gogo barik egiten hasten bagara, proiektuak porrot egingo du eta zerbitzuari buruz iritzi txarrak badaude, inork ez du gure karguan jarriko zerbitzurik.



→ **Beharretara behar bezala egokitzea:** Zerbitzu hauek eskaintzean, bezeroen arazoetara moldatu behar gara. Hau da, ez da berdina partikularrak ematerakoan ikasle batek izango dituen zailtasunak, beste batekin alderatuta eta horretarako, denbora gehiago eman beharko duzu hori lantzen. Beste adibide bat, jende nagusia zaintzerakoan, batzuk laguntza gehiago behar dute gauza batzuetarako, beste batzuk baino.

Horrekin esan nahi duguna da, bezeroek behar eta nahi duten gauzetarako moldatuko garela arazorik gabe.